

Donostia, 2025eko Irailaren 10a

Komunitate maitea:

Datorren irailaren 24an berriro ospatuko dugu Mesedeetako Ama Birjinaren eguna, askatasunik gabeko pertsonen eta espetxe munduan egunez egun lan egiten dutenen zaindaria. Elizbarrutiko espetxe pastoraltzatik Eliza osoa gonbidatu nahi dugu jai honetan bat egitera, jubileu urtean daukagun leloarekin.

“ Itxaropenetik askatasunerantz elkarrekin”

Lelo horrek gogorarazten digu itxaropena ez dela ideia abstraktu bat, baizik eta komunitatean egiten den bide bat. Mesedeetako Ama Birjinak bizitzari errukiz begiratzen erakusten digu, bazterkeriaren, aukera faltaren edo gizarte-kondenaren kateak pairatzen dituztenei lagunduz. Eliza bezala gertu egon nahi dugu, entzuketa eskaini eta bihotzaren benetako askapenari lagunduko dioten zubiak eraiki.

Martuteneko eta hainbat espetxetako presoek gure laguntza behar dute oraindik. Askotan iraganeko akats eta zauriekin kargatzen dute, baina baita arbuioaren eta estigmaren zamarekin ere. Ebanjelioak gonbitea egiten digu, ez dezagula ez enkasilatu, ez epaitu, baizik eta pertsona bakoitzak Jainkoaren aurrean duen duintasuna aitortu dezagula. Kontua ez da bizitakoa ahaztea, adiskidetzeko eta berriz hasteko bideak irekitzea baizik.

Aldi berean, erakundeei eta gizarteari eskatzen jarraitzen dugu justizia gizatiarra, leheneratzaileagoa eta anaitasunezkoagoa ahalbidetuko duten neurri alternatiboak eta gizarteratzeko bideak bultzatzea.

Frantzisko Aita Santuak, 2019an kartzela pastoraltzako arduradunekin egindako topaketan, zera gogorarazi zigun: "Ezin da giza zigorrik egon zerumugarik gabe. Inork ezin du bere bizitza aldatu zerumuga bat ikusten ez badu".

Ziurtasun horrek sostengatzen, fidatzen eta laguntzen duten komunitateak izatera bultzatzen gaitu, inor bide berriak irekitzen dituen itxaropen-horizonte hori gabe gera ez dadin.

Mesedeetako Ama Birjinak askatasuna iragartzen duen Eliza izaten lagun diezagula, aukerak eskaintzen dituen eta bizitza berrabiarazi nahi dutenen ondoan ibiltzen dena.

Eskerrik asko zuen otoitzagatik, konpromisoagatik eta gertutasunagatik.

ESPETXE PASTORALTZA

